

**BIZITEGI ERAIKINA**  
D MAILA

**PEÑAFLOIDA 10**



Egilea eta data; Jose Galo de Aguirresarobe; 1870

**Deskribapena**

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina, lau goi oin eta txapituladun estalkipe bat dituena. Behe oinean harriz xaflatutako fatxada eta goi oinetan entokatua, baoetan azpadura nabarmenduak dituena. Kantoian eta Peñafloida kaleko fatxadaren erdialdean 1952ko hormigoizko begiratokiak ditu (1907ko zurezko beste batzuk ordeztzen dituztenak). Behe oineko baoetako batzuk 1960. urtean eraldatu zituzten. Jatorrizko proiektu komuna Peñafloida 12rekin eta Garibai 8 eta 10ekin.

**Babes erregimena**

- 1.- Erregimen orokorra.
  - Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
  - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
  - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: estalkipeko oina (5. goi oina); begiratokia.
  - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
  - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
    - \* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
    - \* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintza orokorrak betetzeari lotzen diren irizpideak, hala badagokio.